

Amasa-Villabona Uemako 89. udalerria izango da

Martxoaren 30eko udalbatzaren osoko bilkuran hartuko du erabakia udalak; Uemaren batzar nagusia bertan izango da, maiatzaren 29an // 5

Gizarte politikak indartzea dute helburu Berrobin

595.000 euroko aurrekontua onartu dute 2021erako; udalaren finantza egoera «saneatuta» dagoelako pozik daude; inbertsioetarako 100.000 euro bideratuko dituzte // 6

Magiaren eguna antolatu dute Zizurkilen larunbatean

Magia tailerra izango dute gaztetxoentzat Gaztezulon, goizean, eta arratsaldean, berriaz, helduei zuzendutako saioak eskainiko dituzte, Atxulondon // 2

Udaberri Txapelketan murgilduta daude areto futboleak

Laskorain eta Anoeta taldeak ari dira lehian; Tolosako bi talde elkartzetik aurten sortu den Teep Tolosala Ama taberna taldeak ez parte hartzea erabaki du // 7



TOLOSALDEA REALAREKIN BATEGINEZ

Realak apirilaren 3an jokatu duen Athleticen aurkako Espainiako Kopako finaleko partidaren harira martxan jarritako 'Gurekin' kanpainaren autobusa eskualdetik igarotzen ari da, eta udal guztiak batu dira ekimenera // 4

ENERITZ MAIZ



PASA ZAITEZ EUSKALTELERA 31 BAINO LEHEN ETA ESKURATU REALAREN KAMISETA OFIZIALA

Zain gaituzu Tolosako eta Beasaingo gure dendetan.
Unitate mugatuak... Ez zaitez gabe geratu...

Magiaren eguna egingo dute larunbatean Zizurkilen

Magia tailerra eta irekiera gala goizean, eta arratsaldean, Atxulondo kultur etxean helduentzako saioak egingo dituzte

Erredakzioa Zizurkil

Martxoaren 27an, larunbatean, magiak hartuko du Zizurkil. Adin ezberdineko herritar guztiek aurkituko dute gustuko ekitaldiren bat. Magia tailerra izango dute gaztetxoek goizez eta familia osoarentzako ikuskizuna ospatuko da eguerdian. Iluntzean, berriz, helduei zuzendutako ikuskizunak izango dira protagonista.

Gaztezulon magia tailer batekin hasiko da eguna eta LHko 4. eta 6. maila artekoek parte hartuko dute. 12:00etan egingo da irekiera gala Joxe Arregi plazan, eta arratsaldean, Atxulondo kultur etxean, 15 urtetik gorakoentzako



Imanol Ituiño magoa. EGOITZ LOPATEGI

saioak egingo dira. Ekitaldi guztietara joan ahal izateko gonbidapenak beharko dira eta horiek eskuratzeko udal bulegoetara jo beharko da datozen egunetan zehar.

MAGIAREN EGUNA

Martxoak 27, larunbata

10:00 – 12:00. Magia tailerra Gaztezulon. LH4–6 urte bitarteko gazetxoentzat.

12:00. Irekiera gala, Marsel magoaren eskutik. Joxe Arregi plazako estalpean. Familia guztientzat.

18:00 eta 19:45. Helduentzako magia galak. Atxulondoko areto nagusian (15 urtetik aurrera); Imanol Ituiño, David Blanco eta Asier Kidam.

Uraren garrantziaz ohartarazteko ekitaldiak Tolosan

Erredakzioa Tolosa

Astelehenean ospatu zen Uraren Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, Uraren Astea antolatu du Tolosako Udalak, Ingurumen Zentroarekin elkarlanean. *Balora deza-gun ura!* da aurtengo leloa, eta hori oinarri hartuta, uraren kalitateagatik eta bertako ekosistemetan sortzen duten kalteagatik, bi gai nagusitan jarriko da fokua: ibai ertzetan agertzen diren plastikoa eta zigarrokinak lurrera botatzeak sortzen dituen kalteak. Izan ere, zigarrokinak estolderietatik ibaietara, itsasora eta lakuetara iristen dira eta deskonposatzeko 25 urte behar izateaz gain, mundunak eta nikotinak 50 litro ur kutsa ditzake.

Klima Aldaketak, uraren eskuragarritasuna gero eta irregula-

rragoa izatea eta uraren kutsadura handitzea eragin du. Horregatik, uraren garrantzia azpimarratu nahian, hainbat jardura antolatu dituzte. Azken bi egunetan erreka garbiketa egin dute Tolosako DBH-ko ikasleek, SAM zubiaren, Euskaldun Berria zubiaren inguruan, Andre Maria Elizaren atzealdean eta ikastolaren inguruetan. Bestetik, zigarrokinen aurkako ekimena ere egingo da DBH-ko ikasle taldeekin. Herrian zehar lurrean topatutako zigarrokinak markatuko dituzte.

Bestalde, Itsasoa hemen hasten da lelodun bost plaka ipini dira Tolosako bost estoldatan. Zakarrontziak ere berrituko dituzte ibaira zein itsasora iristen diren hondakinak murrizteko. Ibai ondoan dauden zakarrontziak lekualdatuko dituzte ere.

GUTUNAK

Batasunean datza langileon indarra

Urte bete igaro da jadanik Tolosaldeko Autodefentsa Sarea aurkeztu genuenetik, langileon arteko elkartasuna saretu, lan munduko gatazkei aurre egin eta sektore zaurgarrienei laguntzeko asmoarekin.

Aurkeztu eta hilabete batzuetara COVID-19aren pandemia zabaldu zen, baina ahal izan genuen moduan, ematen ari ziren lan gatazkei eusteko hautuarekin jarraitu genuen. Izan ere, birusarekin irekitako egoerak krisialdi ekonomikoa areagotu zuen, burgesiaren ofentsiban sakonduz eta lan gatazkak biderkatuz (ERTE edo kaleratzeak kasu). Testuinguru horretan, babesgabetasun egoeran zeudenei asistentzia juridikoa eman eta lan gatazkei begira elkartasuna antolatzeak dinamika jarri genituen martxan. Hala ere, beharrezkoa egin zaigu egoera berrira egokitu ahal izateko indarrak

bildu eta hausnarketa ezberdinak aurrera eramatea.

Lehendik esan izan dugun bezala beharrezkoa iruditzen zaigu soldatapeko lanaz harago ere langileon antolakuntza sustatzea, gizarte kapitalista osotasunean gaindituko duen prozesu bat gorpuzten joateko. Poztekoak dira, beraz, azken urteetan gizarteko esparru ezberdinetan burgesiaren ofentsibari aurre egiteko garatu izan diren antolakuntza espresioak. Zentzu horretan, bereziki aipatzekoak dira langileon autoantolakuntza eta prozesu sozialista zabaltzeko lanetan ari diren antolakunde eta kolektiboak. Horregatik, Tolosaldeko Kontseilu Sozialista dugu erreferentzia politikotzat eta eskualdean langileon antolakuntza bultzatzeko lankidetzan arituko gara.

Autodefentsa saretik martxan jarriko dugun jardunari dagokionez, zenbait alderdi aipatu nahiko genituzke. Batetik, soldatapeko lanean ematen diren gatazkak irabazi eta bizi baldintzak hobetzen joatea helburu izanik, horretarako eraginkorrak diren antolakuntza forma zein tresnak garatzen joatea izango dugu erronka nagusia.

Bestetik, soldatapeko lanaz gain langileok behar beharrezko ditugun diru sarrerak lortzeko beste zenbait bidetan ematen di-

ren problematikei ere helduko diegu etorkizunean.

Datozen hilabeteetan alderdi horien bueltan jarduteko nahia azaleratu nahiko genuke, beraz eskualdeko langile orokor irabazien problematikan dituen arazoak gainditzeko pausoak ematen saiatuko gara.

Aitortu beharra dago denontzat bizi baldintza berdinak lortzeko oraindik lan handia dugu la aurretik, baina ezinbestekoa da gaurdanik antolatzen hasi eta indarrak batzen joatea. Horregatik dei egiten diegu langileei dinamika ezberdinetan parte hartu eta elkartasuna saretzera, batasunean aurkitzen baita erasoei aurre egiteko indarra.

Tolosaldeko Langile Autodefentsa Sarea

Hartutako erabakien ondorio, gaurko Tolosa

Bereziki azkar, bereziki indartsu, bereziki eder esnatu da aurreko udaberria. Nire kafe beroaren lurrinak, kaleko behe lainoa bultzatuz, argitzen hasten dira japoniar gerezioak etxeko leiho azpian. Maluta leun, goxo, zuriek ateratzen naute gaueko ametsetatik, egun argiko ametsetara eramateko.

Begi bistaz pasatzen ditut behin eta berriz eta nik bezala,

ibiltari goiztiarren ere erreparatzen diote gerezioendoen edertasunari. Zeharka, korrika, patxadaz oinez pasatzen direnek. Argazkiak ateratzen jarrita, asko eta asko.

Gure herrian magnoliak dira udaberriaren adierazle. Zumalkarregikoak datozkit gogora. Zuri, hauskor, zuhaitz babesgabearen lore biluztua. Sendoago, indarrez, arrosa kolore bizian, esnatzen da Kondeaneko Aldapa. Su artifizialak Zabalarreta parkean. *Ederra eta piztia* bezala, magnolia ederra zedro izugarriaren kontra Oriaburuko lorategian.

Egun argiko ametsetan barrena Arrameleko zubiraino, Belateko esne-bide zuri bukaezina begi bistan dugula. Errekaren beste aldean Arkauteko lorategian, platanondoak eta berde dirauten hagin eta sekuoiak. Belazearen berdetasun argitsuak ematen dio borobiltasuna.

Eta lorategitik, lorategira, zuritik arrosara, arrosatik horira: Norbegiarren lorategia.

Eta ametsen munduan Oria ibaiaren gainetik, duela urte batzuk inork irudikatuko al zuen ibaia horrela? Berazubi, Zumardi, Arramele. Martin arrantzalearen baimenaz eseri naiz Zezen Plaza azpiko sahats negartiaren adarrean. Askok maite dut. Bera da aro berriko Oriaren magala

berreskuratu zuen lehena. Eta pasako dira egunak, hilabeteak, urtarok. Berdez, horiz, gorritz, laranjaz estaliko da Tolosa. Iurramendi pasealekuko ezkiak babestuko gaituzte berorik gogorrenetan. Betiko platanondo apal eta zintzoek beteko dute bere funtzioa, Trianguloa plazan, San Frantziskon, Araba etorbidean.

Eta etorriko dira gora Zabalarretako pago, haritz eta gaztainondoak, baita ere Zumardiaundi eta Zumarditxikikoak. Elosemi parkea izango da, den guztia. Altxor berde, bizitzaren kutxa magikoa.

Eta Gernikako Arboleko ginakoa izango da urtaroei urrezko zigilua jarriko diona. Oparituko dizkigu milioika urte koloreko bihotz forma duten hostoak, eskertzeko azken urteetan jasotako zaintza.

Eta eguzkia ezkutatzearekin batera, zaintzaile, zaindari eta zelatari gelditzen dira zedro erraldoiak, Tolosaren azkeneko mendearen istorio osoa gordetzen dutenak. Beraiek esan diezagukete, eta beraiek bakarrik, nork amestuko zukeen gaur bizi dugun Tolosa; gaurko Tolosa garai batean eta baita ere azken urteetan hartutako hainbat erabakiren ondorio baita.

Patxi Amantegi

Tolosako Ingurumen zinegotzia

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Zizurkilgo taberna batean. Interesatuak deitu 652 74 58 79 telefono zenbakira.

Aste Santurako eskaintza oparoa, han eta hemen

Askotariko ekitaldi eta jarduerak antolatu dituzte opor egunetarako: irteerak, kirol eta kultur jarduerak edota tailerrak

Erredakzioa

Aste Santuko egunei begira, eta batez ere etxeko txikienentzat, aisialdirako ekitaldiak antolatu dituzte Tolosaldeko herri askotan.

Alegiako Udalak, esaterako, jarduera ezberdinak eskainiko ditu Lehen Hezkuntzako haurrentzat. Apirilaren 6tik 9ra, lau egunetan, bi jarduera izango dituzte aukeran. Alde batetik, futbola eta saskibaloia uztartuko dituen kanpus bat eskainiko dute, eta bestetik, Itzal Titere Laborategiaren tailerra izango dute. Bihar izango da izena emateko azken eguna, Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxean. Gaur, 18:30etik 20:00etara, eta bihar, 10:00etatik 11:30era egin ahalko da.

Anoetan, bestalde, udaberriko tailerrak antolatu ditu gaztelekuak. Hiru euroko prezioa ordaindu beharko da ikastaro bakoitzeko eta izen emateak 09:00etatik 13:00etara udaletxean egin daitezke, edo bestela, 17:00etatik 20:00etara gaztelekuan. Bihar da izena emateko azken eguna. Lau tailer antolatu

dituzte: buztinarekin sortzen, kimikariak, sekretuaren bila eta Bubble balls.

Zizurkilen, LH 4-6 arteko gazteentzako irteera antolatu dute Galaxi Parkera, apirilaren 6rako. Bestalde, Euskal Itsas Ondarea ezagutzeko irteera ere antolatu dute DBH 1-4 adin-tarteentzat, apirilaren 8rako. Azkenik, Gazte Ekintzaile Taldeak jarduera bat antolatu du apirilaren 9an. Olinpiada egingo dute LH 5-DBH 2 tarteetako gaztetxoentzat.

Alkizan ere ekitaldiak badituzte prest. Hain justu, Fagus Alkiza interpretazio zentroak antolatu ditu, eta izena emateko, emaila bidali beharko da kultura@alkiza.eus helbidera edo whatsapp 688 60 44 66 telefono zenbakira. Baserri paisaien eraikuntzan gure arbasoek izan duten eragina eta garrantzia ezagutzera emateko tailer ibiltaria eskainiko dute, batetik, apirilaren 3an. Bestetik, Ainhoa Goenaga sortzaileak apirilaren 11n eskainiko du tailerra Ur mara museoan, 10:00etatik 13:00etara. Tailer honetan, haize-arrain propioak egiteko aukera izango dute haurrek nahiz helduek.

17 positibo berri izan dira azken egunean, Tolosaldean

Erredakzioa

Osasun sailak emandako datuen arabera, 11.810 test egin zituzten herenegun, eta horietatik 510 (%4,3) izan ziren positiboak. Gipuzkoan 150 atzeman zituzten, tartean, 17 Tolosaldean (Tolosan zazpi, Asteasun hiru, Alegian eta Zizurkilen bina, eta Amezketan, Anoetan eta Lizartzan positibo bana). 5.000 biztanletik gorako eskualdeko herrien kasuan, To-

losan 231koa da azken hamabost eguneko intzidentzia tasa, eta Villabonan 169koa. Osasun eremuie begira, Alegiako (551) kolore gorrian dago, eta Ibarakoa (267), Tolosakoa (220) eta Villabonakoa (219) horian daude.

Ospitaleen egoerari dagokionez, COVIDaren ondorioz 47 pertsona ospitaleratu zituzten atzo, denera 243 pertsona daude ospitaleetan, eta COVIDa duten 81 pertsona ZIU daude.

Juan Sebastian Elkanoren eta Pedro de Tolosaren herriak batuz, Tolosatik Ondarroarako zeharkaldia proposatu du Nairobittarrak Aste Santurako; 65 kilometro egingo dituzte bost egunetan

Kostalderako ibilbidea

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Pasa den urteko udan Nairobittarrak natura, historia eta kultura uztartzea proposatu zuen hainbat ibilbideren bitartez. Bada, eskaintzak harrera ona izan zuela ikusita, gainean ditugun Aste Santuko opor egunetarako errepikatzea erabaki dute.

Egungo osasun egoerak ezartzen dituen mugak baldintzatu-ta, eta «txoko eder eta interesgarri ugari badirelako Euskal Herrian», egin duten eskaintza bide beretik doa, hau da, gugandik gertu izango da. Aste Santurako, ordea, eskaintza berri dute, eta bidaia berria prestatu dutela azaldu dute Iosu Iztueta eta Iker Iriarte Nairobittarrako kideek. Elkano barnealdetik kostaldera izena jarri diote Tolosan hasi eta Ondarroan amaituko duten oinezko ibilbideari.

«Datorren urtean betetzen dira 500 ute lehen mundu bira burutu zutenetik, eta espedizio hura egin zuten bi gipuzkoarren herriak, Juan Sebastian Elkano eta Pedro de Tolosarenak, lotu nahi izan ditugu modu honetara, baita horretarako erabili zuten Victoria ontziarekin zerikusia duten kostaldeko zenbait herri ere», azaldu du Iriartek. Herri horiek zeharkatzea baino gehiago izango da, dena den, bost egun eta 65 kilometro izango dituen ibilaldia. «Orain dela 500 urteko ohiturak eta bizimodua ezagutzen saiatuko gara: nola bidaiatzen zuten, zer jaten zuten, zergatik joaten ziren».



Iosu Iztueta eta Iker Iriarte, Nairobittarrako kideak. I.T.

Iosu Iztuetak azaldu duenez, pasa den urteko udan egin zuten ildo berari jarraitu diote: «Ibilbidea diseinatu dugu, eta hori tematikoa, didaktikoa eta edukiz betea izaten saiatu gara; helburua ez baita mendian ibili ibiltze hutsagatik edota distantzia bat ahalik eta azkarren egitea, baizik eta guztiz kontrakoa, lasai ibili, bazterrak ezagutu, leku izenak zergatik diren jakin...».

Alderdi horretarako, hau da, historiaren pasarteetan sakontzeko, Iriartek eta Iztuetak hainbat lagunen laguntza ere izango dute: «Zarautzen, Getarian edo Zumaian ditugun hainbat lagunengana joko dugu beraiek dakiten hori kontatzeko, saregileak edo antxoak kontserban egiten dituztenak, kasu». Eta, horrekin batera, Elkano Fundazioa edota Zumaia flysha bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute, besteak beste.

<<ILUSIOZ GAINEZKA>>

Iztuetak eta Iriartek aitortu dute-nez, «buru belarri» prestatu dute Aste Santurako ibilaldi berria, eta «ilusio betez» daude. Bi txanda egingo dituzte. Lehena apirilaren 1ean hasiko da, eta bigarrena, apirilaren 5eko astean egingo dute. Bi txandetarako taldeak osatuta dituzten arren, oraindik ere lekua dagoela azaldu dute, beraz, interesa dutenek Nairobittarren webgune berritura (nairobittarra.eus) jo besterik ez dute egin behar, informazioa topatu edo harremanetan jartzeko.

Bestalde, udari begira jarriak ere badira Nairobittarrako kideak. Hala, pasa den urtean egin zuten Gaztaren ibilbidea egiteko aukera izango da, Elkano barnealdetik kostaldera ibilbideaz gain. Eta, bi horiekin batera, Erronkaribarren gora izeneko ibilbide berria ere egin asmo dute, Pirinioetan barna.

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN URTEKO BILKURA NAGUSIA

EZ-OHIKO BILKURA NAGUSIKO GAI-ZERRENDIA

1. Galtzaundi Euskara Taldearen estatutuen aldaketa.

OHIKO BATZAR NAGUSIKO GAI-ZERRENDIA

1. 2020ko memoriaren eta balantzearen onarpena.

2. 2021ko egitasmoaren eta aurrekontuaren onarpena.

3. Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena eta onarpena.

4. Galderak eta eskaerak.

5. Imanol Esnaolaren (Gaindegia) gogoeta:

o Euskalgintzaren geografia XX. mendean:

Nondik gatoz? Nora goaz?

Eguna: 2021ko martxoaren 25a, osteguna.

Ordua: 18:00.

Tokia: TOPIC aretoa, Tolosa.



Kike Amonarriz Gorria,
Galtzaundi Euskara Taldeko lehendakaria
Tolosan, 2021eko martxoa



Berrobiko hurrek harrera beroa egin zieten Realeko autobusari eta bere ordezkari. Belauntzan Silvia Moneo alkateak jaso zuen 'Gurekin' bandera. E. MAIZ

Tolosaldeak bat egin du Realarekin

Eskualdeko udal guztiak batu dira Realak martxan jarri duen 'Gurekin' kanpainara; autobusak gaur hartuko ditu azken banderak gurean

Eneritz Maiz Etxarri

Realeko autobusa herenegun hasi zen eskualdeko herrietan banderak jaso eta uzten. Atzo, Ikaztegiatetik sartu, eta Tolosa, Ibarra, Leaburu-Txarama, Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi, Irura, Anoeta eta Hernialde zeharkatu zituen.

Harrera beroa egin zieten herrietan autobusari, eta baita Realeko ordezkari ere. Besteak

beste, presidente ordea den Joseba Ibarburu eta jokalaria ohia den Mitxel Loinaz egon ziren herriarrek. Loinazek hainbat sinadura ere utzi zituen eskualdean. Herri guztietan animoak jaso zituzten apirilaren 3an Athleticek aurka jokatu duten Espainiako Kopako partidarako.

Gaur, 09:30ean hasita, Alkiza, Larraul, Asteasu, Zizurkil, Aduana eta Amasa-Villabona zeharkatu dituzte.



Ikaztegiatan eskolako haur guztiez gain beste hainbat herritarrek ere harrera beroa egin zioten autobusari; Elduainen udal ordezkariak gain haurrak izan ziren protagonista. E. MAIZ



1 BBK KARPIN FAUNA faunaren babes zentrua

Lagun birentzako sarrera bikoitza

infokarpin@gmail.com
94-610 70 66 • 626 622 245
KARRANTZA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
943 45 88 56

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 EUREKA ZIENTZIA

MUSEOA
Bi lagunentzako bina sarrera konbinatu (museo eta planetariuma)

eurekamuseoa.eus/eu
943-01 24 78

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

Mahai ingurua eta kontzertua antolatu ditu GKS Villabonan

AMASA-VILLABONA // Gazte Koordinadora Sozialistak COVID-19aren testuinguruak langile klasearengan utzitako ondorioen inguruan aritzeko mahai ingurua antolatu du. GKS, Itaia eta Gasteizko Etxebizitza Sindikatu-ko kideek hartuko dute parte, bihar 17:00etatik aurrera Villabonako Gurea aretoan. Ondoren, Desgaraian taldearen kontzertua izango da. Ekitaldirako sarrerak 4 euro balio du.

‘Jantzari’ dokumentala eskainiko dute bihar

TOLOSA // Iurretako 2018ko San Migel jaietan dantzara lehen aldiz irten zen zortzi neska-mutilez osatutako taldearen bizipe-
nak biltzen dituen lana ikusteko aukera izango da, bihar, 19:00etan Tolosako Topic zentroan. Bertara joan ahal izateko sarrera beharrezkoa da. Doakoa da sarrera, eta eskuratzeko Topic zentroaren webgunean (topicolosa.com) sarreraren atalera jo beharko da.

Urteberri eguna ospatuko dute igandean Zizurkil

ZIZURKIL // Ilargiaren arabera egutegia erabiltzen zuten euskaldunek antzina. Egutegi horren arabera, urte berriari sartzera goaz datorren asteburuan eta, hori ospatzeko, ekitaldi berezia antolatzen ari dira Herribizigune elkarteak. Igandean 17:30etan jarri dute hitzordua, Herriguneko Pello Mari Otaño plazan. Talo-merienda egingo dute musikaz lagunduta, urte berriari ongi etorria emateko.

‘Non dago Mikel?’ eskainiko dute apirilaren 11n

ANOETA // Mikel Zabaltzaren inguruko filma eskainiko dute Mikelasagasti auditorioan apirilaren 11n, igandea, 18:00etan. Sarrerak, gaurtik aurrera salgai izango dira udaletxean, 08:00etatik 13:00etara eta goizean jaso ezin dutenek helbide honetara idatzi beharko dute mezua: kultura@anoeta.eus. Hiru euro ordaindu beharko dira emanaldia ikusi ahal izateko.

Basoaren inguruan hausnartzeko saioak antolatu dituzte Alkizan

Fagus Alkiza interpretazio zentroak hitzaldi bat antolatu du biharko eta ibilaldi gidatu bat egingo dute larunbat goizean

Erredakzioa Alkiza

Martxoaren 21ean ospatu zen Basoen Nazioarteko Eguna. Fagus Alkiza interpretazio zentroak bat egin du egun horrekin eta egitaraua antolatu du. Alkizan hainbat motatako basoak aurki daitezke, gehienak Garrantzi Komunitarioko Habitata bezala izendatuak, eta Euskal Herriko bioaniztasuna babesteko oso garrantzitsuak. Bertan pagadiak, hariztiak, urkidiak, baso nahasiak edo haltzadi bakan batzuk daude.

Hernio-Gazume KBE Konserbazio Bereziko Eremua da eta Natura 2000 Sarearen barruan kokatua dago. «Basoen erabilera intentsiboaren ondorioz, gaur egun mendian dauden zuhaitz masak txikiak dira eta egitura aldetik pobreak», esan dute Fagus Alkizako arduradunek. Beraz, Hernio-Gazume KBEko pagadien kontserbazio egoera hobetzea dute helburuetako bat. Horretarako, Naturtzaingidako biologo eta basozainek hainbat lan egin dituzte: hildako egur kantitate gehitu dute zuhaitzak eraztundu eta botaz; basoetan soil-guneak handitu dituzte; espezie exotikoak kendu dituzte; eremu honetan nagusi diren pagadi eta hariztiei laguntzeko zuhaitz espezie egokiak landatu dituzte...

«Basoak dira gizadiaren birkak eta euren baitan dago gizaki, animalia zein landareen biziraupena», esan dute Fagus Alkiza interpretazio zentroko kideek.

EGITARAUA

Martxoak 26, ostirala

19:00. Fagus Alkiza zentroan *Eukalipto* en eragina ingurumeneari. Arturo Elosegi EHUKo Ekologia saileko irakasleak eskainiko du hitzaldia.

Martxoak 27, larunbata

10:00. Alkizako plazatik abiatuta pago motzak ezagutzeko ibilbide gidatua egingo dute. Valentin Mugar-tza Aizkorri-Aratz natur parkeko zuzendariak egingo ditu gidari lanak ibilaldian zehar.

Amasa-Villabona Uemako kide izango da

Astelehenean, martxoaren 30eko udalbatzaren osoko bilkuran hartuko du erabakia Amasa-Villabonako Udalak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabona Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izango da. Martxoaren 30eko osoko bilkuran eztabaidatu eta hartuko dute erabakia hautetsiek. Batzar horretan Uemako estatutuak onartuko dira, eta mankomunitateari Amasa-Villabona mankomunitateko kide gisa onartzeko eskaera formalazko zaio. «Honek guz-

tiak, euskararen normalizazio lanean udalaren lana indartzea ekarriko du», esan dute udal ordezkariak.

Udalak erabaki garrantzitsu honen berri emateko, AMAVI udal aldizkariaren ale berezi bat argitaratu eta aste honetan bertan herriko etxe guztietara banatuko du. Era berean, bideo bat ere kaleratu du Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen nondik norakoak azalduz eta

Amasa-Villabonan euskararen egoera zein den azpimarratuz.

BATZAR NAGUSIA MAIATZEAN

Batzar Nagusia da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko erabakigune nagusia, eta aurten Amasa-Villabonan izango da maiatzaren 29an, Gurea Antzokian. Besteak beste, egun horretan bertan ofizialki onartuko du Uemak Amasa-Villabona mankomunitateko 89. udalerrri gisa.



HASI DIRA LANAK LARREA AUZOAN

Villabonako Larrea auzoaren barrualdetik doan errepideak duen egoera «tamalgarria» dela adierazi du Amasa-Villabonako Udalak. Ondorioz, 2020ko abenduan errepide hori konpondu, txukundu eta asfaltatzeko erabakia hartu zuen udalak eta lanak astelehenean hasi ziren. Hiru aste inguruko iraupena izango dute obra hauek eta trafikoan aldaketak eragingo ditu. Obrak 54.306 euroko aurrekontua izango du. J.M.



ORIA



BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com



Irisgarritasuna hobetzeko, hainbat lan egingo dituzte herrian zehar, apirila eta ekaina bitartean. I. S. A.

595.088 euroko aurrekontua izango du Berrobiko Udalak

Martxoaren 4an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalak 2021erako aurrekontua; gizarte politikak indartu nahi dituzte

Irati Saizar Artola Berrobi

Berrobiko Udalak 595.088 euroko aurrekontua izango du 2021ean. «Pozik» da David de Miguel Berrobiko alkatea udalaren finantza egoera «saneatuta» dagoelako. Izan ere, 2020an defizitrik gabe itxi ahal izan zuten urtea, eta hortaz, aurtengo aurrekontua «etorkizuneko bermea da maila sozialean».

Onartu duten aurrekontuan, gizarte politiken arlora bideratutako partida 2.000 euro inguru handitu dute; aurten, 14.200 euro gastatzea aurreikusit dute. Era berean, COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko bonu bat ere sortu dute, 4.000 euroko aurrekontuarekin, «okerren pasatzen ari diren herritarrentzako laguntzak emateko».

Aurrekontuaren helburu nagusietako bat herrira begirako hobekuntzak egiteko proiektuak bultzatzea da, eta inbertsioetarako 100.000 euro bideratu dituzte. Besteak beste, hiriko irisgarritasuna hobetu nahi dute, eta horretarako, espaloiak zabalduko dituzte, oinezkoen pasabideak errepideko kotara jaitsiko dituzte eta malda handia duten kaleetan baranda berriak jarriko di-

tuztela zehaztu du De Miguelek. Atsedean kalean espaloia berritu eta zati berri bat eraikiko da; udaletxe aurreko autobus geltokian espaloia zabaldu eta eserleku bat jarriko da; Sorone inguruan baranda eta pibote berriak jarriko dira; ermita inguruan, Iturburu eraikinaren ondoan, barandak jarriko dira; Ibai-gainen komun publikoetara sartzeko koska jaitsiko da eta eskolaren

ondoko aldapan baranda bat ezarriko da; azkenik, Muntegin tope batzuk jarriko dira kotxeen espaloira igotzea oztopatzeko.

Bestalde, «klima aldaketaren aurkako» proiektu bat ere sustatuko dute. Autokontsumoko 67 eguzki panel jarriko dituzte eskolako estalkian, 450Wpkoak,

Herrira begirako hobekuntzak egiten jarraitzeko 100.000 euro bideratuko dituzte inbertsioetara

eta udal eraikin guztiek erabili ahal izango dute energia hori. Apirilerako jarri nahi dituzte martxan. Inbertsio horrek 32.000 euroko kostua izango du, baina alkateak aurreratu du zazpi urte baino gutxiagoan amortizatu ahal izango dela panel horiek sortuko duten energia aurrezpenari esker. «Proiektu horrekin, energia asko aurreztuko dugu, eta epe labur eta luzerako proiektu errentagarria izango da. Baina, batez ere, Berrobi ingurumena gehiago errespetatzen duen udalerria izatea lortuko dugu», esan du alkateak.

BERRIKUNTZA GEHIAGO

Herriko kirol instalazioak eguneratzeko beharra ere badagoela azpimarratu du De Miguelek. Zehazki, pilotalekua txukundu nahi dute, eta besteak beste, jolasguneko pintura berritu eta pilotalekuaren aldameneko kirol pista ere eraberrituko dute, gaur egun «erdi abandonatuta» dagoen zoladura berrituta. Proiektua itxi gabe dagoela argitu du alkateak, baina 30.000 euro inguru bideratzea aurreikusit dute.

Inbertsio horiez gain, landa eta baso pistak konpontzeko partida ere aurreikusita dago, eta batez ere lurzorua egonkortzeko lanak egingo dira bide horietan, eta horrela baserrietako bideak konponduko dituzte.

Hilberriak eta urteurrenak



Txaro Eskisabel Zunzunegi

Atzo hil zen 72 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Senarra: Manuel Bidekieta; seme-alabak: Imanol eta Izaskun Aierbe, Edurne, Koldo eta Jaione Barandiaran; bilobak: Aizpea, Enara; anaia-arrebak, ezkon anaia-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR OSTEGUNA arratsaldeko BOSTAK ETA ERDIETAN SALBADORE DEUNAREN Parroki Elizan gorpua aurrean dela, egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldez aurretik.

LEGORRETA, 2021eko martxoaren 25ean

OHARRA: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da, GAUR OSTEGUNA 10:00-13:30.

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 €	• Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 €	• Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 €	• Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Udaberri Txapelketari ekin diote

Ez da ligarik jokatu emakumezkoen areto futboleko, eta Udaberri Txapelketa jarri dute abian; Laskorain eta Anoeta lehian ari dira, baina ez sortu berri den Teep Tolosala Ama Taberna taldea

Imanol Garcia Landa

Denboraldi honetan eskualdeko emakumezkoen areto futboleko taldeek ez dute liga txapelketarik izango. Orain Udaberriko Txapelketa antolatu du Gipuzkoako federazioak, eta bertan lau talde ari dira, tartean eskualdeko Laskorain eta Anoeta. Eskualdeko beste taldea, aurtan sortu den TEEP Tolosala Ama Taberna, ez da parte hartzen ari.

Tolosako Laskorain taldeak Ordiziaren aurka jokatu zuen asteburuan eta 3-0 galdu zuen. Gogoz zeuden partidak jokatzen hasteko, Ane Artutxa jokalaria azaldu duenez: «Aurreko urteko martxoan utzi genion jokatzeari, beste guztiek bezala. Egia da denboraldi honen hasieran entrenatzeko aukera izan genuela, baina gero egoeraren arabera baldintza gehiago jartzen ziren. Orain berriro entrenatzen hasi garenean, liga ez baina behintzat txapelketa txiki bat egiteko aukera egongo zela esan zitzaigun. Taldean batzuk prest azaldu gara eta hortxe hasi gara».

Ordiziaren aurkako partidaren sentazioak ez zirela txarrak izan azaldu du Artutxak: «Bagenekien Ordizia talde zaila dela, baina kontuan izanik denbora asko pasa zela elkarrekin partida bat jokatu gabe, sentazioak ez ziren txarrak izan eta alde horretatik gustura gaude». Txapelketari begira, «gustura jokatze» helburua dute: «Ahal den neurrian disfrutatu egin nahi dugu. Ahalik eta ondoen jokatzen saiatuko



Anoeta taldea, aurreko denboraldian ateratako argazkian. ATARIA



Teep Tolosala Ama Taberna denboraldi honetan sortu da. ATARIA

gara eta partidak irabazten badiugu, hobe».

Anoetak Antiguoko taldearen aurka jokatu zuten asteburuan, eta 0-7 galdu zuen. «Denbora baten partidarik ez genuela jokatzen koronabirusaren gaiarengatik, eta nahiz eta txapelketa txikia izan, animatu gara jokatzerari, eta ez da gutxi», esan du Miren Izeta jokalaria. «Taldeen ez gara asko, baina moldatu gara

parte hartzeko, eta honek ere ematen digu aukera ondo pasatzeko».

Entrenamenduak egiteko aukera asko ez dituztela izan azaldu du Izetak: «Kiroldegiak eta itxita egon dira eta herri batetik bestera pasatzeko ere ez dugu aukera handirik izan. Aukera izan dugunean behintzat entrenamenduak egin ditugu. Egia esan gogo handia genuen parti-



Laskorain taldea, aurreko denboraldian ateratako argazkian. ATARIA

dak jokatze».

Antiguoko taldea ez zutela ezagutzen gaineratu du Anoeta taldeko jokalaria: «Taldea berria da, eta Donostia-koa izanik eta klubak berak duen izenarekin, espero genuen talde ona izatea. Aspaldi ez genuela partidarik jokatu, eta ahal genuena egin genuen». Udaberri Txapelketarako helburua ez dela partidak irabaztea esan du Izetak: «Gure helburua da emakumeon areto futbola berriro martxan jartzea, koronabirusaren gaiarekin zortzi taldetik lau azaldu baikara jokatze».

BITALDE ELKARTUTA

Denboraldi honetako berritasunetako bat Tolosako bi talde elkartzeko da. TEEP Samaniego-Orixe Tolosaldea eta Tolosala taldeak bat egin dute eta Teep Tolosala Ama Taberna osatu da. Garazi Arregi jokalaria azaldu duenez, «aurreko denboraldian bi taldekoek bat egin genuen Uzturpe fron-

toian entrenamenduetan, eta askotan batera entrenatzen genuen. Elkarren artean hitz egin, denboraldi honi begira ikusi genuen jende asko ez ginela, eta taldea Tolosan mantentzeko pentsatu genuen bi taldeak elkartzea. Ideia txiki bat bezala sortu zen, eta azkenean proiektu handi batean gauzatu da».

Udaberri Txapelketan ez parte hartzea erabaki dute. «Bizi dugun egoera honengatik izan da», zehaztu du Arregik. «Entrenatzeko ere zailtasunak izaten ari gara nahi bezainbeste jende elkartzeko, baina halere entrenamenduak egiten ari gara. Hori bai, lehiaketari begira ikusten genuen jende gehiago beharko genuela egoki lehiatzeko, eta pentsatu genuen ez parte hartzea». Entrenamenduekin jarraitzen dutela gaineratu du, batez ere alde teknikoak lantzeko asmoarekin, eta datorren denboraldiari begira lehiaketarako prestatzeko.

Bolada onari jarraipena emateko gogoz eta astebete deskantsatu ondoren gogo handiz ekin genion lehen faseko azken partida prestatzeari. Badira jada aste dezente entrenamenduetako sentazioak onak direla, eta horrek azken partidetak emaitza onekin batera lanean jarraitzea motibatzen gaitu.

Aste honetan aurrean genuen aurkaria ez zen edonolakoak hala ere. Añorgaren aurka jolastan genuen, momentu hartan bigarren

Kalitatezko jauzia



Aulkitik
Ainhitze Aranalde
Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

postuan zegoena, baina argi genuen inork baino gehiago behar genituela hiru puntuak eta ezin ginela uzkuritu.

Partidan sufritzea tokatu beharko zitzaigula bagenekien, baina prest geunden horretarako ere. Gogor hasi ziren beraiek, baina hala ere, lehenengo zatiko hamargarren minutuan kontreraso ezin hobe batekin Ainarak bat eta hutsekoa lortu zuen. Nahiz eta beraiek partida ber-

dintzeko aukerak izan, taldeak defentsan lan izugarria egin zuen eta markagailua ez zen lehen zatian ipinitako bat eta hutsekotik mugitu.

Garaipen honekin lehen fasea jaitziera postuetatik kanpo amaitu dugu, baina hala ere orain jaitziera fasea jokatzea tokatzen zaigu. Momentu onean gaude eta ahalik eta gehien luzatzen saiatuko gara gure helburua lortu ahal izateko, 1. Nazional Mailan gutxienez beste urtebetez mantentzea. Gogor neskak, lortuko dugu!

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

Publikorik gabe bada ere, partidak bueltan ditugu!

PREFERENTE MAILA
Larunbata 27, 17:00etan
BILLABONA F.K.E. - DANENA K.E.

OHOREZKO KADETE MAILA
Igandea 28, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - LAZKAO K.E.

 Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO MARTXOAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Zientzia eta teknologia gazteengana gerturatzea helburu duen Bizilabe ekimena Tolosaldeko bost herritara zabandu dute martxoan; bihar Berastegin egingo dute azken tailerra

Gazteak zientziara batuz

Erredakzioa

Zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematikan gazteak trebatzeko aisialdi giroko hezkuntza egitasmoa da Bizilabe. Tolosaldeko Udalek, Tolosaldea Garatzenek eta Elhuyar Fundazioak sustatutako ekimena da, Tolosan eta Amasa-Villabonan ikasturte osoko eskaintza iraunkorra du, eta martxorako Tolosaldeko beste bost herritara ere zabandu dute, egun batez.

Hain justu, Alegian, Alkizan, Asteasu eta Iruran izan dira, eta Berastegin izango da azken tailerra, bihar, 16:30etik 18:30era, Gaztelekuko terrazan. Bertan, 10 eta 14 urte bitarteko gazteek hartuko dute parte. Beste herrietan egin bezala, bi orduko tailer praktikoa izango da, zientzialariek gidatuta, eta biologia, kimika, fisika edota teknologiarekin lotutako esperimenduak egingo dituzte. Bertan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango aldezturik izena ematea, hori bai, gune bakoitzaren aforoak mugatuko du parte-hartzaile kopurua.

Tolosaldean zientziaren inguruko ezagutza baxua dela erakutsi du gazteen artean egin duten galdetegiak, eta egoerari buelta emateko eta zientzia eta teknologiarekiko interesa bultzatzeko sortu dute Bizilabe ekimena.



Asteasu bi tailer egin zituzten pasa den astean, Gaztetxean. ATARIA



Alegiako udaletxeko arkupeetan egin zuten tailerra, hilabete hasieran. ATARIA

AGENDA

Deialdiak

Albiztur. Odol ematea, 18:00etan, kultur etxean.
Berastegi. Irakurle klubak Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* aztertuko du, liburutegian, 18:00etan.
Irura. Loatzo musika eskolaren txistu entzunaldia, elizan, 18:30ean.
Tolosa. IKASek deituta, *Ikasle langileon batasunaz autoritarismoari kaña!*, 11:00etan, Trianguloan.
Tolosa. Euskal emakume idazleen irakurketa feminista taldea, liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. Galtzaundiren irakurketa taldeak *Safo* lana aztertuko du, kultur etxean, 18:00etan.
Tolosa. Galtzaundi euskara taldearen batzarra, 18:00etan, Topic-en.
Tolosa. Nola prestatu karakolak saltan ikastaroa, *online*, 19:00etan.

Zinema

Tolosa. *El ombligo de Guie* 'danifilma, zine forumean. Leidorren, 18:45ean.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Elkarriketap
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo Pote (Eukene Larrarte)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Postalak. Bidaien tarte.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
20:00. Musikasi. Musika klasikoa.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goizean giro motela- rekin esnatuko gara. Hodeiek zerua estaliko dute eta giroa ilun xamarra izango da. Hala ere, ez da euririk espero eta giro lasaia izango dugu. Egurditik aurrera, ordea, hodeitza zulatzen hasiko da eta arratsaldean ostarate politak izango ditugu. Haizeak goizean ipar-mendebaldetik joko du, arratsaldean aldiz ipar-ekialdetik. Tenperaturak 15-16 graduan joko du goia.

Bihar. Kaskartzera egingo du eguraldiak. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte, hodeiak eta ostarateak eta giro lasaia izango ditugu. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera ordea, fronte ahul bat gerturatu, zerua estali eta euri-lagar modura zaparradaren bat edo beste izango dugu, batez ere, ilunabar-gau partean. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak 15-17 graduan errendituko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**GAZTEEN
ETORKIZUNA
LANTZEN**
#NikEreBatxilergoaOrixen

Aurrematrikula epea: Idazkaritzan edo Online: apirilaren 12tik 23ra

ORIXE TOLOSA BHI: Santa Luzi, 16 • Tolosa 20400 - Gipuzkoa • 943-89 92 89 • www.orixe.net

Batxilergoak:
• Zientziak
• Giza eta Gizarte Zientziak

Eskaintza zabala eta eleanitza

ATE IREKIAK:

• **Zientziak:**
Tolosaldeko Lanbide Heziketan, martxoaren 26an 16:00etan
• **Giza eta Gizarte zientziak:**
Paper Eskolan, martxoaren 26an 16:00etan

